

2012ko OPOSAKETAK

Hezkuntza Sailak Mahai Orokorrean sinatukotik 3.029 plaza atera gabe utziko ditu

Honez gainera aldaketak izango ditugu hurrengo oposaketa moduan

Krisia aitzakiatzat hartuta, neoliberalismotik at beste politika egin nahi ez dutenek langileon aurka legislatzen jarraitzen dute. "Lehentasunak ezarri behar ditugu" lelopean gezur galanta ezkututzen dute: ez da dirurik falta, lapurrak daude soberan. Alternatibak egon badaude, baina etorkizun oparoa ez dira beraiek proposatzen dituzten azpiestruktura erraldoiak, fiskalitate injustua, fraude fiskal zigorgabekoa edo banketxeei diru piloa ematea. Gizartearentzat oinarritzkoak diren zerbitzuetan ordea hitzarturikoa ez dute betetzen eta murrizketak aplikatzen dituzte.

Mahai Orokorrean hitzemandako 5.100 plazetatik iaz 1.515 atera zituzten eta 2012an 556 aterako dituztela diote, beraz 3.029 plaza atera gabe utziko dituzte. Guztiz onartezina krisiak jotako garai hauetan zerbitzu publikoak indartu eta enplegu publikoa sustatzea funtsezkoa denean eta matrikulazioa gehitzen ari denean.

2012ko oposaketa deialdia urtarrila bukaeran edo otsailaren hasiera publikatuko dute. Oposaketak arautuko dituen dekretua hau da: "REAL DECRETO 276/2007, de 23 de febrero". 2007-2011 urte bitartean ezagutu ditugun oposizioak, errege dekretu honen aldi baterako xedapenean (disposición transitoria) oinarritu dira. Orain, xedapen hori bertan bera gelditzen da eta errege dekretuaren erregimen nagusia berriz ere aplikatuko da. **Beraz, 2012ko oposaketetan azken urtekoekin alderatuz aldaketa nabarmenak daude**, batez ere merituen baremazioan; orain lan esperientzia eta formakuntza akademikoak parekatu egiten dira. Beste alde batetik argi ez dagoen **froga praktiko** bat gehitzen zaio oposizio faseari. Gainera Unitate Didaktiko guztiak tribunalean aurrean defenditu beharko dira. Frogak, eliminatorioak dira beraien artean. (ikus koadroa)

Bestalde, azaroaren 18an BOE-n temarioak aldatu egiten dituzten AGINDUAK publikatu dituzte; maisu-maistren ([ORDEN, EDU/3136/2011](#)) bigarren hezkuntzan eta lanbide heziketan ([ORDEN, EDU/3138/2011](#)), zein hizkuntz eskola ofizialetan ([ORDEN, EDU/3137/2011](#)). Euskal autonomi erkidegoan temario hauetaz aparte beste temario propioak ditugu, baina oraindik ez digute argitu deialdian temario hauek ezarriko diren ala ez. Adi beraz ikasten hasi baino lehen hau argitzeko. Guk zerbaít dakigunean informatuko zaituztegu. Jakin ezazue:

Ikastaroak antolatuko ditugu afiliatuentzat eta temarioak ere nola lortu adieraziko dizuegu.

Hauek dira lanpostuak kidegoen arabera:

OPOSAKETARAKO LANPOSTUEN PROPOSAMENA
PROPUESTA DE PLAZAS PARA OPOSICIÓN

Maisu-Maistren Kidegoa / Cuerpo de Maestros/as

	1HE / PL1	2HE / PL2	GUZT/TOT
Haur Hezkuntza / Educación Infantil		46	46
Lehen Hezkuntza / Educación Primaria		115	115
GUZTIRA / TOTAL		161	161

Bigarren Hezkuntzako Irak. Kidegoa / Cuerpo de Prof. de Ens. Secundaria

	1HE/PL1	2HE/PL2	GUZT/TOT
Filosofia / Filosofía		10	10
Gaztelania / Lengua Castellana	3	21	24
Geografia eta Historia / Geografía e Historia		13	13
Matematika / Matemáticas		34	34
Fisika eta Kimika / Física y Química		21	21
Biologia eta Geologia / Biología y Geología		29	29
Frantsesa / Francés		10	10
Ingelesa / Inglés		41	41
Gorputz Hezkuntza / Educación Física		18	18
Ekonomia / Economía		9	9
Euskara / Euskera		42	42
Informatika / Informática		21	21
Eraik. zibilak eta etxegintza / Constr. Civiles y Edificación	5	4	9
Lan-Prestakuntza eta Orientabidea / F. O. L.	2	11	13
Ostalaritza eta Turismoa / Hostelería y Turismo	6	3	9
Eskualtze Soziokomunitarioa / Interv. Sociocomunitaria	2	9	11
Fabrik. mekanikoaren ant. eta proiekt./ Org. y Proy. de Fab. Mec.	3	8	11
Akuikulturako Prozesuak / Procesos de Cultivo Acuicola		3	3
GUZTIRA / TOTAL	21	307	328

Lanb. Hezkuntzako Irak. Teknik. Kidegoa / Cuerpo de Prof. Técnicos de F.P.

	1HE/PL1	2HE/PL2	GUZT/TOT
Sukaldaritza eta Pastelgintza / Cocina y Pastelería	10	3	13
Diag. klin. eta ortoprosesikoko prozed. / Proc. de Diag. Clín.y Ort.	5		5
Osasun eta laguntzako prozed. / Proc.Sanitarios y Asistenciales	4	5	9
Gizartearentzako zerbituak / Servicios a la Comunidad	4	5	9
GUZTIRA / TOTAL	23	13	36

H.E.O.etako Irakasleen Kidegoa / Cuerpo de Prof. de EE.OO.II.

	1HE/PL1	2HE/PL2	GUZT/TOT
Italiera / Italiano	2		2

Musika eta Arte Esz. Irak. Kidegoa / Cuerpo de Prof. de Música y Artes Esc.

	1HE/PL1	2HE/PL2	GUZT/TOT
Orkestra / Orquesta	1	1	2
Konposizio-oinarriak / Fundamentos de Composición		2	2
GUZTIRA / TOTAL	1	3	4

Ikuskarien Kidegoa / Cuerpo de Inspectores/as

	1HE/PL1	2HE/PL2	GUZT/TOT
Ikuskaritza / Inspección		25	25

GUZTIRA / TOTAL	1HE/PL1	2HE/PL2	GUZT/TOT
	47	509	556

Jarraian, ERREGE DEKRETUAREN laburpen koadroa ikusgai duzue:

OPOSIZIO ALDIA (Probak, beraien artekoak, kanporatzerakoak dira)			
1. proba	A) zatia: Proba praktikoa * (ariketak)	Gutxienezko puntuazioa: % 25	0-10 bitarte ebaluatzen da. Zati bakoitzak gutxienez 3 puntu balioko ditu. Gutxienez 5 atera behar da bi zatien artean.
	B) zatia: Gaia Zozketaz egiten da: - 25 gaitarako 2 gairen artean - 25-49 gai bitarte 3 gairen artean - 50 gai edo gehiagorako 4 gairen artean	Gutxienezko puntuazioa: % 25	
2. proba	A) Programazio didaktiko baten aurkezpena	Gutxienez 5 atera beharko da	0-10 bitarte ebaluatzen da
	B) Unitate didaktiko baten garapena eta defentsa. - Norberak aurkeztutako programazioan edo gaitegian egongo da oinarritua. - Tribunalaren aurrean defendatu behar dira 3 zozketatzen dira eta bat aukeratzen da		
OPOSIZIO ALDIA 2/3 PONDERATZEN DA			

* REAL DECRETO, artículo 21. Parte A: En todas las especialidades, las Administraciones educativa convocantes incluirán una prueba práctica que permita comprobar que los candidatos/as poseen la formación científica y el dominio de las habilidades técnicas correspondientes a la especialidad a la que se opte.

Lehiaketa aldia		
Lan eskarmentua	Kidego berean eta publikoan: ikasturte bakoitzeko puntu 1 Beste kidegoetan eta publikoan: ikasturte bakoitzeko 0,5 puntu Kidego berean bestelako ikastetxeetan: ikasturte bakoitzeko 0,5 puntu Beste kidegoetan bestelako ikastetxeetan: ikasturte bakoitzeko 0,2 puntu	Gehienez 5 puntu
Formakuntza akademikoa	Norberaren espediente akademikoa: gehienez 1,5 puntu Ikasketa Aurreratuen Diploma edo masterrak: puntu 1 bakoitzeko Doktoretzak: puntu 1 Ez-ohiko saria doktoretzan: 0,5 puntu Unibertsitateko titulazioak (1. edo 2. ziklokoak): puntu 1 Musika zein dantzako titulu profesionala: puntu 1 HEOko gaitasun titulua: 0,5 puntu Goi Mailako teknikari titulua: 0,2 puntu	Gehienez 5 puntu
Bestelako meritua	Deialdi bakoitzak zehaztuko du	Gehienez 2 puntu
GEHIENEZ 10 PUNTU LORTU AHALKO DIRA		
LEHIAKETA ALDIA 1/3 PONDERATZEN DA		